

## IKUSKATZAILEA ETORRI DA

Ikuskatzailea eta eskolako zuzendaria sartu zirenean, ez genuen tentetu beharrik izan, guztiak baikeunden zutik.



- Txikiak dira, eta zera... oharkabe samarrak dira- esan zuen zuzendariak.
- Bai, bai- esan zuen ikuskatzaileak. Eser zaitezte.
- Alegia bat ikasten ari ginen- azaldu zuen irakasleak-. << Azeria eta belea izenekoa >>.
- Oso ongi – esan zuen ikuskatzaileak-. Jarraitu, lasai.

Irakasleak ausaz bilatzen ariko balitz bezala egin zuen eta Agnan seinalatu zuen atzamarraz:

- Mesedez, Agnan, errezitatu alegia.

Ikuskatzaileak eskua altxatu zuen.

- Niri utziko al didazu? -galdetu zion irakasleari eta, gero, Clotario seinalatu zuen-. Zuk, atzealdeko horrek, errezitatu alegia hori, mesedez.

Clotariok ahoa ireki zuen eta negarrez hasi zen.

- Baina, zer du? galdetu zuen ikuskatzaileak.

Irakasleak esan zion barkatzeko, Clotario oso lotsatia zela, eta orduan, Rufori galdetu zioten. Rufo ikaskide bat da; haren aita polizia da. Rufok esan zuen berak ez zekiela alegiari buruz, baina bazekiela zeri buruzkoa zen gutxi gorabehera; horrela, << roquefort >> bat mokoan zeraman bele baten ipuina zela azaltzen hasi zen.

- Roquefort bat? – galdetu zuen ikuskatzaileak. Gero eta harrituago zirudien.
- Ez! -esan zuen Alcestesek-. << Cambert >> bat zen.

- Ezta pentsatu ere! – esan zuen Rufok-. Beleak ezin zuen camembert-a eraman mokoan, likatsua baita eta, gainera, usain txarrekoa.
- Ez du usain ona, ez; baina oso gozoa da – erantzun zuen Alcestesek-. Gainera, horrek ez du ezer esana nahi; xaboiak oso usain ona du eta oso txarra da jateko, behin dastatu nuen eta.
- Hara! – esan zuen Rufok-. Astakirten galanta zara eta nire aitari esango diot isun mordoa jartzeko zure aitari!

Eta borrokan hasi ziren. Den-denak zutik geunden,

garrasika. Ia denak, egia esan, Clotariok negarrez jarraitzen baitzuen bere txokoan eta Agnan arbel aurrean zegoen, << Azeria eta belea>> errezitatzen. Irakaslea, ikuskatzailea eta zuzendaria ere oihuka zeuden <<nahikoa da!>> esanez. Primeran pasatu genuen.

Guztia bukatzean eta denak esertzean, ikuskatzailea

irakaslearengana hurbildu zen eta bostekoa eman zion.

- Gaur arte ez dut jakin zenbateraino ardura eskatzen duen gure lanbideak. Segi horrela, irakasle! Oso ongi!

Eta arineketan joan zen zuzendariarekin.

Guk asko maite dugu irakaslea, baina bera ez da batere

ondo portatu gurekin. Guri esker zoriondu dute eta, ordainetan, kalera irten gabe zigortu gaitu!

**1) Zer esan nahi du << bostekoa >> eman esapideak?**

- a. Zaplastekoa eman
- b. Eskua eman
- c. Dirua eman

**2) Zer dira << roquefort>>-a eta << camembert>>-a?**

- a. Txokolateak
- b. Gaztak
- c. Jogurtak

**3) Zein da hezkuntzako ikuskatzaileen lana?**

- a. Ikastetxeen funtzionamendua kontrolatzeaz arduratzea.
- b. Ikastetxeetako haurrak zelatatzeaz arduratzea.

**4) Zein alegia ikasten ari ziren haurrak?**

---

**5) Zergatik hautatu zuen irakasleak Agnan alegia errezitatzeko?**

- a. Buruz zekielako.
- b. Ez zekielako.

**6) Irakasleak azaldu zuenezm, zergatik hasi zen negarrez Clotario?**

---

**7) Nor hasi ziren eztabaidan beleak mokoan zeukan gazta mota zela eta?**

---

**8) Idatzi zenbakiak, gertakariak ordena egokian emateko.**

- a) Rufo alegia kontaktzen hasi zen eta Alcestesek eten zuen.
- b) Ikasle guztiak garrasika hasi ziren.
- c) Ikuskatzaileak Clotariori esan zion alegia errezeitzeko.

**9) Ikasle guztiak zutitu egin ziren eta garrasika hasi, bi mutil izan ezik.  
Nor?**

---

**10) Zertan ari ziren bi mutil horiek?**

---

---